

Sarrera

Bi urte dela ekin genion bideari amaiera iritsi zaio, momentuz. Bere momentuan emandako hitza, sei zenbaki argitaratzearena, bete egin dugu honenbestez, eta pozik bete gainera. Beste fase bati ekiteko ordua heldu zaigu, honenbestez. Geldiune bat egin behar dugu eta egindakoaz jabetzeko patxada hartu, harpidedungoarekin harremanetan jarri eta eritziak jasotzeko astia eman, kolaboratzaileekin berba egin eta etorkizunean egin daitekeena taxutzen hasi. Presarik ez baina lotan geratzeko astirik ere ez, herri hau biziko bada «jantzi» beharrean bait dago, lehen zenbakiarekin esan bezala, «bihotzak bakarrik ezin du gehiago» eta. Izango dugu elkarren berri.

Zenbaki hau osatzeko V. mendeurrenaren tematikari heldu gura izan diogu. Abya Yala-ra (edo Amerindiar) europarrak iritsi zireneko 500 urte betetzen diren honetan, geure aletxoak ekarri gura izan dugu gaiari buruzko eztabaidaren pizgarri izan dadin. Nondik heldu gaiari, ordea? Ugaritzen ari dira gure artean, zorionez, efemeride hau dela eta, hari ezberdinei tiratuta argitaratzen ari direnak, eta kontua ez denez han eta hemen gai beretsuak errepikatzen aritzea, aztertu egin dugu orain artean euskaraz argitaratu izan dena eta osagarria izan daitekeen materiala kaleratzen saiatu.

Argitaraturiko lanik gehientsuenak alderdi historikoan sakontzen saiatzen dira. Hauetariko asko eta asko egin zen sarraskiaren kronikak dira, beste autore batzuk bertako kolonialismoari aurre egiteko jarraitutako estrategien berri ematen dute, eta ez dira falta orduan hasitako kolonizazioaren ondorioak gaur eguneko gizartean nola isladatzen diren aztertzen saiatzen direnak.

Geure aldetik, alderdi historikoari tarte bat zabaldu diogu, baina zatirik mardulena oraingo egoerari eta etorkizunari begirako eritziei eskaini gura izan diogu, horrela eginda zerbait berria ekartzen ari garela pentsatzen dugu eta. Goazen, bada, orriotan zehar aurkituko duzunaren aipamena egiten.

Lehenik eta behin, Iñigo Ramirez de Okariz irakaslearen lana dakargu, euskaldunek Amerikako kolonizaketan izandako partehartzea jorratzen duena. Kokatu egiten du gaia historikoki Euskal Herriari dagokionean eta euskaldunen joan-etorriak sailkatu egiten ditu hiru multzo handitan. Hor ageri dira elkarren ondoan itsas-gizon trebeak, apaizak eta abenturazale amorratuak; Kolonekin lehen bidaiari joandakoak, Fray Juan de Zumarraga eta Lope de Agirre, kasu. Artikuluaren amaieran

ematen den bibliografian, bestalde, euskaraz gai-ri buruz irakur daitekeenaren zerranda bat osatu dugu.

Bigarren artikuluan, beste antzuolar batek, Imanol Larreak hain zuzen, duela bi urtetik Guatemalan komunitate bateko albaitero gisa ikusi eta ikasi duena kontatzen digu bizi-bizi. Bertatik jasotako testigantza da, bertara laguntzera joandako lagun baten hausnarketa sakona. Eskerrik asko, Imanol!

Hurrengoa ere, Joseba Barriolak egindakoa, bertakoen hitza jasoz borobilduriko lan hunkigarria da. 1991.eko Urrian Guatemalan izan zen Joseba Xelajun burutu ziren ihardunaldietan, eta bertaratu ziren nazio indioetako ordezkarien esanak bildu zituen zenbaki honetarako. Saiatu egiten da egilea geure eta hango nazio etnikoen antzekotasunak azpimarkatzen, denok ere helburu bere-tsuetara iristea bait dugu helburu. Xelajun izandakoek plazaraturiko manifestua ere bertan jasutzen da.

Jarraipena emateko, gaurko egoerari zabaldu nahi izan dizkiogu ateak eta horretarako bertakoei eman hitza. Inoren zai egon gabe beren baitatik bildutako indarrez nazio indioen geroa eraikitzen ari direnen pasarteak aukeratu eta itzuli egin ditugu euskarara, ezelako erderatara jo beharrik izan gabe euskaraz mamitu ahal ditzagun berorien itxaropena eta izateko borondatea. Lau zatitan banatuta, Guillermo Bonfil, Eduardo Galeano eta Wankarren lan mamitsuen berri izateko aukera eskaintzen dugu, bereziki; eta, orobat, kolonizazioarekin hasierarekin batera elizaren ordezkarien jarrera kontrajarriak azaleratzeko aurrez aurre jarri ditugu Bartolome de las Casas eta Gines de Sepulvedaren eritziak.

Ez dugu jausi gura izan bertakoei behin baino gehiagotan europarroi leporatzen diguten akats bercean. Horrela diosku hitzez hitz Cojti Cuxil-ek:

«Indioak hitza hartzen duen aldiko, honako hau da gertatzen dena: Edo oker dabilela esaten zaio, edo ezjakintasuna leporatzen zaio, edo ixil-larazi egiten zaio besterik gabe».

Geuk esan gabe zer egin behar duten, hobe beraiei entzutea eta ea geuk ba ote dugun euron-gandik ikastekorik pentsatzea izango zaigu mesedegarriago.

Azken artikuluan, Antxon Mendizabal eta Sagrario Lopezek, bertako errealitatea gertutik ezagutzen ahalegindu direnak, hausnarketa sakona dakarkigute bertako nazio indioen askapene-

rako egin izan denaz eta geure aldetik egin ahal dugunaz. Marxismoa eta indianismoa jartzen dituzte aurrez aurre eta bion eritzia plazaratzera ausartu.

Lehenago esan bezala, beraz, atzera begiratu geratzeko baino aurrera begira oldartzen ari dena gertuagotik ezagutzeko parada aurki dezake zenbakian irakurle argiak.

Zabaldu gura dugun sakoneko mezura hurbilpen bat eginez gero, **hiru oinarri** dituela esan dezakegu. «La finitud del mundo actual» moduko espresioak ugaritzen ari diren mende bukaera honetan, zalantzan jarri gura dugu Jazten-etik ere hemisferioko iparralde aberastuak garapen hitzari ematen dion zentzua, eta zabaldu lau haizetara garapen hitzaren benetako esanahia ezin daitekeela desberdintasunean, axolagabekeria eta murrontzan oinarritu gaur egun bezala. Inondik inora. Munduko nazio etnikoei **berdintasunaren printzipioa** onartzen baldin bazaie, orduan ikusi ahal izango da ea zein herrik agertzen duen ardura eta **erantzukizuna** bere burua garatzeko -hitzaren benetako zentzuan- eta modu horretara **bizitzari etsi**, ekologia ziurtatu, jokuan dagoena lurraren bizitza bera baita, «la finitud del mundo actual» luza dadin gura badugu bederen.

Eta behingoz berdintasunean oinarritzen hasitakoan, hedatzen joan ahal da dagoeneko Europan zehar batez ere ikusten hasi garena, alegia, nazio etnikoen gainean eraiki diren estatu politiko suntsitzaileak hankaz gora ari direla geratzen mende bukaera honetan, berezko komunitate linguistikoak direla han eta hemen zutik dirautenak jasandako zapalketak gorabehera:

Honela, bada, jabe gaitzen benetako «*historia beltza*» gizaki zuriaren beraren historia dela, hondamendira garamatzana berandu baino lehen; eta ez zaigu txarto etorriko, bide batez, indarraren boterearen kontra «*indioarena egiten*» jarraitzea, geure boterea erakusten jarraitzea, malkelespe bizirik bait gaude, eta, garrantzitsuago dena, bizitzeko asmotan gainera. Izan ere, Arankari indioen kanta batek dioenez bat eginez, sinestu egiten dugu guk geuk ere garai hoberik ezagutuko dugula:

«Lur osoa arima bakarra da
haren zati gara
ezingo dira hil gure arimak
egokitu egin ahal dira
inoiz ez itzali
arima bakarra bait gara
mundua bakarra den eran.